

Hiltzaile isilaren aurkako borroka Italian

Eternit lantegiaren arrastorik ez da geratzen, baina amiantoak astean hildako bat uzten du Piamonteko Casale Monferrato hirian. Bertako herritarrek gerra deklaratu diote mineral kantzerigenoari.

| ANE IRAZABAL |

JUSTIZIA. Hori da balkoi, erakusle-
leiho eta horma gehienetan irakur
daitekeen hitza. Casale Monferra-
tok ez du bere historia ahaztu nahi,
bada, herritar gehienek galdu dute
senitartekoren bat mesotelioma
minbiziak edo asbestosia birikieta-
ko gaixotasunak jota. Biak dira
amiantoaren hautsa arnastearen
ondorio.

Eternit lantegiak modernitatea
islatu zuen hamarkada luzez. Casale-
tar asko biziki poztu ziren Stephan
Schmidheiny enpresari suitzarrak
erabaki zuen fibrozementuzko
fabrika Piamonte eskualdearen
bihotzean ezartzea. 2.000 lanpostu
eta soldata duinak eskaini zizkien
orduan. Baina iraultza ekonomiko
horren B aldea hamarkada batzuk
geroago ezagutu zuten. “1970era
arte ez ginen hildakoak amiantoari
lotzen hasi, baina minbizia kasuak
epidemia bat bezala zabaldu ziren”,
gogoratu du Condello Pietano Eter-
niteko langile ohiak.

Pietanok hogeitaz lan egin zuen
amianto edo asbestoarekin, hain
zuzen, 1986an Schmidheiny fabrika
itxi eta asbestozko hondakin guztiak
han utzi zituen arte. Pietano ez da
inoiz gaixotu, baina emaztea galdu
berri du mesoteliomaren erruz.
Patuaren kapritxoak? Ez, estatistika
hutsa. Amiantoaren ondorioz hilda-
ko Casaleko herritarren %80k ez
zuen inoiz Eterniten lan egin.
“Emazteak laneko uniforme zikinak
garbitzen zizkidan, denak hauts zuriz

inpregnaturikoak. Ez genekien hilko-
rra zenik”, esan du tristuraz.

Asbestoak ez du bereizketarik egi-
ten. “Ingurune-kutsadurak barruan
hartu gaitu herritar guztiak”, uste du
Bruno Pescek, Casaleko Amianto-
aren Biktimen Senitartekoen Elkarte-
ko bozeramaileak. Pescek biktima
guztien fitxategiak kronologikoki
gordeta ditu. Izan ere, 34.000 biztan-
leko udalerrri honetan 2.000 herritar
baino gehiago hil dira Eternitekin
botatuko hauts zuriaren ondorioz.
Familia bakoitzak bere istorioa
dauka, baina batzuek larruz ordaindu
dute Casalen bizi izana. Romana Bla-
sottik 86 urte ditu eta senarra, ahizpa,
alaba, lehengusina eta iloba joan zaiz-
kio mesoteliomak jota. Orduz geroz-
tik, amiantoaren kontrako borroka-
ren sinbolo bilakatu da Italian.
“Justizia nahi dugu”, errepikatzen die
behin eta berriz kazetariei.

Condello Pietanok hogeitaz lan egin zuen amiantoarekin. Bera ez da gaixotu, baina emaztea galdu berri du mesoteliomaren erruz. Patuaren kapritxoak? Ez, estatistika hutsa

David eta Goliat

Baina justizia da, hain zuen, amian-
toaren biktimek lortu ez dutena.

Hainbat urtetako borrokaren ondo-
rioz, Casaleko herritarrek salaketa
bat jarri zuten Schmidheiny Eterni-
teko jabearen aurka, eta ingurumen
eta osasun hondamendia kontziente-
ki eragitea egotzi zioten. 2012an
Turingo epaitegiak irmoki jokatu
zuen eta 16 urteko kartzela zigorra
ezarri zien Schmidheinyri eta Jean-
Louis Marie Ghislain de Cartier de
Marchienne bere bazkideari. Epai
historikotzat jo zen orduan, izan ere,
multinazional handi baten jabearen
aurkako lehen ingurumen zigorra
izan zen. Helegite epaitegiak ere
epaia berretsi zuen eta beste bi urte
ezarri zizkien biei.

Baina Schmidheinyk Erromako
kasazio-auzitegira jo zuen, Italiako
sistema juridikoaren istantzia garran-
tziatsuenara, eta honek aurreko bi
epaiak baliogabetu zituen. Auzite-
giak ez zuen delituen egiazkotasuna
zalantzan jarri, baina delitu horiek
preskribituta zeudela iritzi zion.
“Epailaren arabera, fabrika itxi zen
unetik arazoa amaitu zen, baina hori
zentsugabekeria hutsa da. Casaleko
herritarrek hiltzen jarraitzen dute”,
salatu du Pescek. Are gehiago, adi-
tuen ustez, mesoteliomaz hildako
casaletarren kopurua ez da pikorik
altuenera iritsi, gaixotasuna 40 urte-
ren buruan agertzen delako.

Aurrera begira

Nolanahi ere, Casaleko herritarrek
ez dute amorarik eman eta prozesu
berri bat hasi dute Schmidheinyren



COSIMO CARIDI



COSIMO CARIDI

Eternit lantegiaren arrasto apur batzuk baino ez dira geratzen Casale Monferrat. Goian, herritarren borrokaren ikur bilakatu den *Eternit: Giustizia* leloa ageri da Italiako banderan. Behean, enpresako artxibategiak abandonatuta. Eternitek urtetan amiantoaren arriskua ezkutatu zuela salatu dute casaletarrek.

2023 arte amiantoak hildakoen kopuruak gora egingo du EAEn

EUSKO LEGEBILTZARREKO Enplegu, Gizarte Politika eta Etxebizitza Batzordeak dokumentu garrantzitsu bat onartu du ekainean: amiantoaren kalteei aurre egiteko konpentsazio funtsa eskatzen duen ponentzia. Biktimei eman beharreko laguntzak aztertzeaz gain, datozen urteetan mesotelioma eta asbestosiagatik hilko diren pertsonen aurreikuspenak ere egiten dira bertan.

Espainiako Estatuan amiantoak 70eko eta 80ko hamarkadetan erabili zen gehien. Txostenak dioenez, Frantzian baino %30 gutxiago kontsumitu zen eta horren arabera kalkulatzen dira EAEko etorkizuneko minbizi kasuak: 2014-2018 artean 346 pleurako minbizi eta 233 mesotelioma egon litezke urteko; 2019-2023 artean, berriz, 517 eta 350 kasu hurrenez hurren. Hortik aurrera beherakada nabarmena aurreikusten du ponentziak.

Kopuru horiek askoz altuagoak izan litezke, dena den. Paco Pucche ingurumen adituak algoritmo bat sortu du kalkulua egiteko. Bere esanetan, 2010eko hamarkadan Espainian 7.000 lagunetik gora hilko dira soilik mesoteliomaz –horri gehitu behar zaizkie asbestosiak eta pleurako minbiziak hildakoak–. Datu bat: EAEn amiantoak sortutako minbizi kasuen tasak estatukoarena hirukoizten

du. Asviemie amiantoaren biktimen elkar-teak dio Euskal Herrian 25.000 langilek arnastu dutela iraganean amiantoak eta zenbait estimazioren arabera hirutik bat behar baino lehenago hilko dela.

Kompentsazio funtsa: etengabe auzibidera joan behar ez izatea helburu

Gaur egun dagoen arazo handiena da amiantoak arnastu eta 30 edo 40 urtera sortzen dela gaixotasuna, langileak jadanik jubilaturik dagoenean. Ondorioz, langile ohiek auzibidera jo behar izaten dute indemnizazioa lortzeko. Enpresa asko jada ez dira existitzen eta beste askok ez dute izena emana RERA fitxategian –amiantoak kentzen ari diren enpresen erregistroa–. Gainera, langileak izan ez arren ez dira gutxi amiantoarekin gaixotutako pertsonak: %11 senideak dira –horietako asko langileen arropak garbitzen zituzten emazteak– eta %18 ingurumeneko kutsadurak eragindakoak.

Legebiltzarreko batzordearen ustez arrazoi nahikoa badago konpentsazio funts bat sortzeko. Ponentzian, Europako beste herrialdeetan existitzen diren konpentsazio funtsak aztertu dituzte, horien artean “osoena” Frantziako Estatuko FIVA omen da. Langileak ez du frogatu behar enpresak ez zituela beha-

rrezko segurtasun neurriak hartu amiantoarekin aritzeko. Horrez gain, lan esparrutik kanpoko kasuak estaltzen dituen funts bakarra da Frantziakoa.

Txostenean agertzen denez, euskal erkidegoan Frantziako moduko sistema bat abian jartzeko urtero 32 milioi euro beharko lirarteke, eta Osalanek hori ez du egingarri ikusten. Hala, Legebiltzarrak Espainiako Estatuari eskatu dio konpentsazio funtsa sortzea, bere ustez bera izan baitzen amiantoarekin lan egitea baimendu zuena. Gizarte Segurantzatik ez ezik, mutuen funtsen soberakinetatik ere elikatu dezake diru-poltsa. Asviemie uste du euskal erakundeek gutxienez diru zati bat jarri beharko luketela, Legebiltzarraren proposamenak “garrantzia izan dezan”.

Bestalde, LABek eskatzen duen Amiantoaren Mapa egitea baztertu du Legebiltzarrak, ponentziaren helburua ez ei delako hori eta iritzi batzuen arabera “beharrezkoak ez diren arriskuak” sor daitetzkeelako mapa osatzeko. Bestetik, Osakidetza iragingo liokeen behaketa protokolo bat martxan jartzeko aukera ere aurreikusten du ponentziak, baita amiantoaren institutu nazional bat sortzea ere.

Urko Apaolaza Avila

aurka. Oraingoan hilketa doloso edo borondatezkoa egotzi diote. “Mingarriena da enpresak bazekiela arnasten genuen hauts hori pozoiz hutsa zela. Laborategiko arratoiak bagina bezala jokatu zuen”, azaldu du mesoteliomaz gaixorik dagoen Giovanni Kappa herritarrek.

Schmidheinyren kontrako borroka irabaztea zaila egingo zaie, ordea. Munduko enpresari aberatsenen artean aurkitzen den suitzarraren familiak mundu mailako amiantoaren negozioa kontrolatu zuen XX. mendean. Asbestoa herrialde aberatsenetan debekatu ondotik, hainbat erakunde filantropiko sortu ditu eta garapen jasagarriaren banderadun egin da. Herritarrek ondo gogoratzen dute enpresaren abokatuen-gandik jasotako presioak. “Lehenik errealtatea ukatu zuten; gero, lantegiko lan baldintzak hobetu zituztela eta langileak seguru zeudela esan



Bruno Pescek Casalen amiantoak eragindako biktima guztien fitxategiak ditu gordeta; bera da bozeramailea.

ziguten; eta ondoren, langileen isiltasuna erosten saiatu ziren”, azaldu du Pescek.

Casaleko herritarrek, berriz, mugimendu bateratu bat hezurramitu dute. “Gure burugogorkeria ezaguna da Italia zabalean”, uste du Bruno Pescek. Iragana eta oraina aldatu ez, baina etorkizunari buelta ematea lortu dute biktimen senitar-

tekoek. Bada, amiantoaren ikuspegitik Italiako udalerririk garbiena bilakatu da Casale Monferrato. Herritarren borrokaren ondorioz, Erromako gobernuak garbiketa prozesu bat egin du asbestozko arrasto guztiak hiritik kentzeko.

“Batzuek diote Casaleri buruzko irudi txarra ematen ari garela, baina guk ez dugu tristura transmititu nahi, justiziaren beharra baizik”, azaldu du Assunta Prato izeneko irakasle erretiratuak. Pratok senarra galdu zuen duela hogeita urte, eta badaki bere ilobak ere ez daudela mesotelioma pairatzeaz salbu. Hiru belaunaldi amiantoaren hatzaparretan. Hala ere, Casaleri baino munduari begiratzen dio Pratok: “Herrialde askotan legezkoa izaten jarraitzen du amiantoak. Une honetan milioika herritar daude hauts zuria arnasten”. ■